



Martxoaren 26tik 29ra Bartzelonan egin zen Alimentaria azokan parte hartu zuen Azaro Fundazioa, Leartikerrekin batera. Europako elikagai eta edarien azokarik garrantzitsuenaren den Alimentaria bere 19. edizioan, 75 herrialdeko ia 4.000 enpresa bildu zituen eta nazioarteko 140.000 erosleren bisita jaso zuen azokak.

Apirilaren 23tik 26ra berriz, Bruselan egin den Seafood 2012 azokan izan da Azaro Fundazioa. Itsasoko produktu bizi, fresko eta izoztuei buruzko azokarik garrantzitsuenaren da Seafood 1993. urteaz geroztik. Aurtengoa azokaren 20. edizioa izan da, 1.600 erakusle izan dira Brokerage Event esparruan eta mundu osoko 25.000tik gora erosle eta saltzaile bilduko dira.

European Seafood azoka topagune aproposa da nazioarteko merkatal harremanak egiteko, itsasoko produktuen industrian erabiltzen ari diren teknologia berriei buruzko informazioa lortzeko, norberaren produktuak nazioarte mailan ezagutzera emateko eta negozio aukerak bilatzeko.

Aldi berean, Nutrition and Health esparruan lanean ari diren erreferentziazko zentroekin hitzarmenak egiteko asmoa ere izan du Azaro Fundazioak azoka honetan parte hartuz, arrainean oinarritutako produktu osasuntsuak garatzeko proiektuak abiarazteko. Lea-Artibai Healthy Food estrategiaren barruan, eskualdeko enpresak beraien lehiakortasuna eta merkatuan duten posizioa hobetzeko ekimenak martxan jartzea du helburu fundazioak.

Azoka batean zein bestean, Brokerage Event egingo dira eta han izan da Azaro Fundazioa eskualdeko enpresentzat proiektu berriak eta negozio aukera berriak identifikatzeko asmoz.